

leioa

Udal aldizkaria

Martxoan 2007
61. Zbk.

www.leioa.net

Requiem - Karl Jenkins

Estrenaldia Estatuan

Leioa Kantika Korala

Coral San Juan Bautista de Leioa

Joven Orquesta de Leioa

Garbiñe Abendaño - Sopranoa

Basilio Astúlez - Abesbatzaren Zuzendaria

Margarita Lorenzo de Reizábal - Zuzendaria



EUSKALDUNA JAUREGIAN, apirilaren 21an, 20:00etan

Antolatzailea:



Leioa musikaz blai

Euskalduna Jauregian (berriro ere)



DUELA BI URTE LEIOAK kontzertu gogoangarria egin zuen Bilboko Euskalduna Jauregian; John Rutter britainiar konpositorearen *Mass of the Children* izan zen gertakari horretako obra nabarmenena, eta egitarau bizi eta harrigarria eskaini zen horren inguruan. Musikaren arrakastak eta ikus-entzuleek behar bezalako erantzuna eman zioten Musika Eskolak eta Leioako Udal Kontserbatorioak egindako lanari, eta urte hauetan guztietan bikain heldu den musika-kulturaren isla izan zen.

Berriro ere Euskalduna Jauregira joango gara. Oraingoan musika alorreko beste erronka bat eta beste egitarau erakargarri bat dakartzagu, Leioa "hiri txikiak" duela hainbat urte musikaren alde egin zuen apustu argia ospatzeko. Ospatu egin behar dugu, eta ospatu nahi dugu, Leioako Udal Kontserbatorioa eta Musika Eskola sortu zirenetik kopuruan handitzeaz gain, kalitate eta zabalkundean ere handitu egin direla. Izan ere, hainbat eta hainbat ume, gazte eta ez hain gazte ibili dira bertako ikasgela eta instalazioetan, primeran pasatzen. Etengabe, beste ikasgai eta musika-tresna batzuk gehitu izan dira eta, era berean, geure inguruan izen handia duten irakasleen plantilla osatu da. Ondorioz, musika alorreko hezkuntza-kalitateari dagokionez, parametro bikainak eskuratu dira, bai eta arte-proiektzio handia ere estatuko zein nazioarteko hainbat eszenatoki garrantzitsutan. Apaltasunez, Euskadin goi-mailako musika-hezkuntzan sartzeko joera sustatzen gabiltza. Ziur dakigu askok eta askok euren bizitzako atal garrantzitsu bihurtu dutela musika; eta beste batzuk musikari profesionalak dira orain, eta euren bizimodua da musika.

Modu berean, badakigu musika, Leioan, geure erkidegoaren arima hazteko indar handiko elementua izan daitekeela, eta hala da. Hirigintza aldean hainbeste hazi

den eta gero eta herritar gehiago dituen udalerrri honetan, halaber, geure nortasun sentimenduak ere hazten joan izan dira. Leioa heltzen dabil, bere buruarengan eta inguruarengan azaltzen den moduan.

Hori guztia dela eta, maila handiko musika-taldeak ditugunez, bigarren topaketa hau Bilboko Euskalduna Jauregian egitea pentsatu dugu.

Horretarako, berriro ere, BIZKAIEDER enpresaren babesa izan dugu, berau dela geure hiria eta erkidegoa garatzearen protagonista, eta konpromiso berezia duela Lamiako eta Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaiketako Plan Bereziarekin (BBBPPB). BIZKAIEDERek ezin hobeto ulertu du topaketa honen esanahi eta garrantzia eta, horregatik, kontzertu hau egin ahal izateko eskaini digun lankidetzeta eskertu nahi diogu.

Espero dugu Euskalduna Jauregia aurtan ere txiki geratuko dela leioaztar guztiak eta ospakizun honekin bat egin nahi duten gainerako lagun guztiak hartzeko. Jai honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet. Ekarri zuen lagunak. Primeran pasatuko dugu elkarrekin. ■

Jainokhurt

Sin.: Karmelo Sáinz de la Maza Arrola
Leioako alkatea

Bilduko den dirua Casa Abierta GKeri emango zaio oso-osorik, Dominikar Errepublikarekiko Egitasmo Solidarioari jarraipena eman diezaion.

2000. URTEAZ GEROZTIK, Leioako Udala Dominikar Errepublikarekin eta Santo Domingoko hirian egoitza duen "Casa Abierta" GKerekin, bereziki, elkarlanean aritzen da. EDEXek, gizarte intereseko irabazi asmorik gabeko erakundeak, bultzatzen du elkarlan hori eta garapenerako lankidetzak sustatzeko deialdien bidez 2000 eta 2001. urteetan urteko zenbait proiektu babestu ditu.

Hurrengo urteetan, Leioako udalak, Senidetzeko Kooperazio Proiektuetarako dituen laguntzen bitartez, Dominikar Errepublikan proiektuarekin jarraitzea babestu du, horretarako aurrekontua nabarmen handituz. Leioako udalaren babes horri esker, gainera, EUDELen bitartez beste udal batzuek ere parte hartzea lortu da.

Lamiako HI eta Pedro Brand Eskola

2001. urtean Lamiako LHlk senidetzea ezarri zuen Santo Domingoko Pedro Brand eskolarekin, eta Casa Abierta GKerekin batera, "Vivir sin Drogas- La Aventura de la Vida" programan parte hartzen du.

Senidetze horren eremuan azken urte bietan zenbait jarduera egin dira. Alde batetik, Lamiako ikastetxeko eskola-elkarteko ordezkariak eta Leioako Udaleko arduradunek Dominikar Errepublikaren omenezko kultur



jardunaldia antolatu zuten. Bertan, Lamiako Eskolako haurrak egunaren protagonistak izan ziren. Beste alde batetik aurten, 2005ean, eta San Joan jaien egitarauaren barruan, Udalak LEIOA SOLIDARIOA izeneko kultur, jai eta elkartasun giroko jarduera abiarazi zuen, proiektu horretarako fondoak lortzeko helburuz. Ez dugu ahaztu behar enpresek, merkatariek, elkarteek eta gainerako talde edo pertsonak emandako lankidetzak eta ahalegin handiak, horiei esker lortu baita LEIOA SOLIDARIOAren helburua: fondoak biltzea, alegia, guztiak Dominikar Errepublikako proiektu solidarioarako erabiltzeko.

Aurten, eta leioaztarren elkarlanari esker, liburutegia sortu ahal izan da, Leioako neska-mutilen liburuak, ipuinak eta eskola-materiala bidalita. ■

Requiem

Karl Jenkins

SARRERAK 10€ / 6€ ENTRADAS

Conservatorio Municipal de Leioa
(cerrado del 2 al 15 de abril)
tel.: 94 463 86 83

www.euskalduna.net

tel.: 944 310 310

cajeros multiservicio BBK

taquillas del Palacio Euskalduna

KONTZERTUA EUSKALDUNAN
JENKINS RÉQUIEMA
2007ko apirilaren 21a

BIOLIN BI, HARI ETA BAXU JARRAITURAKO KONTZERTUA BWV 1043
Vivace - Largo ma non tanto - Allegro
Bakarlariak : SIGURJON FREYRSSON
SANDRA STANCULESCU

J. S. BACH

POLKA "TRUENOS Y RELÁMPAGOS"

J. STRAUSS

GURE ZORTZI ABESTI - orkestra eta haur abesbatzarako
Orkestrazioa: M. Lorenzo de Reizábal

X. SARASOLA

Binbili-bonbolo
Iruen ari nuzu
Xarmengarria
Horra hor goiko
Kapitan pilotu
Bautista Basterretxe
Uso zuria
Akerria ikusi degu

REQUIEM
Orkestrazioa : M. Lorenzo de Reizábal

K. JENKINS

1. Introitus
2. Dies Irae
3. Hana to Mishi
4. Rex Tremendae
5. Confutatis
6. Kokoro kara
7. Lacrimosa
8. Hitodama de
9. Pie Jesu
10. Tsuki mo mite
11. Lux aeterna
12. Mame de iyo
13. In paradisum

LEIOAKO SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA
LEIOA KANTIKA KORALA
LEIOAKO ORKESTRA GAZTEA

GARBIÑE ABENDAÑO, Sopranoa
LUIS LÓPEZ, Tiplea
XABIER CALZADA, Sol Txirula

BASILIO ASTÚLEZ, Abesbatzen zuzendaria

Zuzendaria: MARGARITA LORENZO DE REIZÁBAL

HAIKU

POEMAK

HANA TO MISHI

Hana to mishi
Yuki wa kinouzo
Moto no mizu

Gozan

KOKORO KARA

Kokoro kara
Yuki utsukushi ya
Nishi no kumo

Issho

HITODAMA DE

Hitodama de
Yukuki sanjija
Natsu no hara

Hokusai

TSUKI MO MITE

Tsuki mo mite
Ware wa konoyowo
Kashiku kana

Kaga-no-Chiyo

MAME DE IYO

Mame de iyo
Miwa nara washino
Kusa no tsuyu

Banzan

ATZOKO ELURRA

Atzoko elurra
Gerezi loreak bezala erori zena
Berriro ura da

Gozan

BIHOTZ-BIHOTZEZ

Bihotz-bihotzez
Zeinen ederrak diren
Sartaldeko elur-hodeiak

Issho

ORAIN ARIMA LEGEZ

Orain arima legez
Harathonat ibil naiteke
Udako zelaietan

Hokusai

ILARGIA IKUSITA

Ilargia ikusita
Neu ere banoa bizitzatik
Bedeinkatuta

Kaga-no-Chiyo

AGUR

Agur
Banoa gauza oro legez
Ihintza belar gainean bezala

Banzan



KARL JENKINS

Galesen jaio zen 1944an. Prestakuntza klasikoa jaso zuen arren, Karl Jenkinsek karrera garrantzitsu eta arrakastatsua egin zuen jazzean eta rokean, eta zenbait taldetan parte hartu zuen, baita horien buru aritu ere.

Musikagile lanetan askotariko erakunde eta helburutarako piezak idatzi ditu. Horietako batzuk oso ezagunak dira jendearentzat. Zalantzarik gabe, Adiemus, Songs of Sanctuary proiektua bere nazioarteko arrakastarik handiena izan da. Mundu osoan interpretatu dute.

1998an Imagined Oceans argitaratu zuen. Ilargiaren hamahiru itsasoek bere irudimenean sortzen zutena gogoan hartuta sortutako lana da. 1999an The Armed Man - A Mass For Peace izenburupean gerren amaieraren aldeko apologia sortu zuen, eta 2005ean Requiem argitaratu zuen. Estilo eta kulturen nahasketa bitxia dugu, bere aitaren omenez sortua. Lan horretarako Kazakhstaneko orkestraren lankidetzatza izan zuen.

Egilearen zenbait gogoeta...

"...Requiema, hildako baten arimaren aldeko meza da. Orokorrean mugimenduetarako ohiko latinezko antolaketa erabili dut, baina beste kultura batzuetako ideiak nahastea gustuko dudanez, haiku erako bost poema japoniar ere txertatu ditut. Poema horiek normalean naturarekin, urtaraldaketekin edo fenomeno naturalekin daukate zerikusia, ideia bakarra biltzen dute eta 17 silaba dauzkate, 5-7-5 eran banatutako hiru lerrotan, errimarik gabe. Testuan ikus daitekeenez, japoniar kulturak uraren zikloari buruz, egoera likido, solido eta gaseosoari buruz daukan ikusmoldea biziaren zirkuluaren metafora gisa uler liteke, bizia denboran zehar birsortzen den eta irauten duen zer infinitu bat deneko ideia klasikoari lotuta.

Ekialdeko eta mendebaldeko testuak uzatatu ditut haiku mugimenduetako bitan. Horietan, hurrenez hurren, Benedictus eta Agnus Dei daude sartuta. Biak ere ahots baxuek abesten dituzte, monasterioetako estiloan, haur ahotsek abestutako japoniar testuaren kontrapuntu moduan.

Haiku mugimenduen instrumentazioan herri hartako folkloretik hurbil-hurbil dauden melodiak agertzen dira, orokorrean txirulak aurkezten dituela. Gainera, eta denboran nahiz espazioan urrun dauden ideiak musikaren bitartez bateratzea gogoko izan ohi dudanez, danbor etnikoen zenbait mota erabili ditut, baita hip-hop eritimoa ere Dies Iraen.

Aita musikaria zen, inspirazio-iturri izan dut, eta hari dedikatu diot lan hau." ■



LEIOA KANTIKA KORALA BASILIO ASTÚLEZ

LEIOAKO UDAL KONTSEBATORIOAREN baitan sortu zen 2001ean, bertako zuzendari Basilio Astúlezen ekimenez. 10 eta 17 urte bitarteko 55 neska-mutilek osatzen dute, denak Kontsebatorioko ikasleak. Leioa Kantika Koralaren helburu behinenak neska-mutirik abesbatza-musikak ematen duen gozamenaren partaide egitea eta haien musika-prestakuntza hobetzea dira, horretarako, estilo eta erreperitorio ahalik eta ugarienera eta aberatsenera hedatuz.

Hasieratik Kantikak zenbait abesbatza elkarraldi eta jaialditan parte hartu izan du, hala Euskal Herrian, nola hemendik kanpo (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Bartzelona, Avila, Asturias...). Baita nazioarteko jaialdi eta biretan ere: "Vilanova de Gaia 2004" Gazteentzako XI. Nazioarteko Jaialdian Porton; "Kopágovur 2004 II. Abeste Astea" Islandian; "Europa Cantat Junior 2005" Katalunian, besteak beste.

Hori ez ezik, 2003an kontzertu-bira bat ere egin zuen Gaudeamus Koralarekin eta Leioako Gazte Orkestrarekin batera, euskal egile garaikideen programa bat interpretatuz; Musikaste 2003an aurkeztu zen eta disko konpaktu batean jaso *Udazkeneko Jolasak* izenarekin. Besteak beste, CD horretan Eva Ugalde egile donostiar gaztearen *Iratxo*a obra ere badago, bereziki egitasmo horretarako idatzia, hain zuzen.

Urte berean OLBEren 53. Opera Denboraldiaren inaugurazioan parte hartu zuen, G. Pucciniren *La Bohème* opera

interpretatuz Aquiles Machado tenorrarekin eta Maria Bayo sopranoarekin batera. Aldi berean, Tolosako 36. Nazioarteko Abesbatza Jaialdian parte hartu zuen; entzute eta ospe zabaleko lehiaketa horretan jatorri desberdinetako beste bost haur-abetesbatzak ere jardun zuten.

2005ean Baionako Katedralean kantatu zuen John Rutter egile ingelesaren *Mass of the children*en Frantziarako estrainaldia izaki; gero Euskalduna Jauregian ere eskainiko zuen eta izenburu bereko disko konpaktua atera ere bai.

Hurrengo urtean, 2006ko ekainean, kontzertu-bira bat egin zuen Mexikon barrera, hiriburuko osperik handieneko kontzertu-areto batzuetan jardunez arrakasta handiarekin kritikaren eta entzuleen aldetik, eta bereziki gonbidatu zuten Pueblako Nazioarteko Abesbatza Jaialdia ixteko. Bira horretan Albert Alcaraz alakantar egileak beren-beregi abesbatzarentzat egindako *Laminak* en mundu-estrainaldia eskaini zuen.

Urte bereko abenduan beste CD/DVD bat aurkeztu zuen: *Kantika*, zeinek abesbatzak berriki egindako eta jaialdi eta gertakari zenbaitetan aurkeztutako lana jasotzen duen musika eta iruditan.

Besteak beste, Kantikak laster Bartzelonako Palau de la Musica-n abesteko asmoa du. Orobat, uda honetan kontzertu-bira bat egingo du Andaluzian zehar eta beste egitasmo bat ere badu: beste CD bat, zenbait konpositorek abesbatzarentzat beren-beregi egindako gabonetako musikarekin. ■



SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA BASILIO ASTULEZ

ABESBATZA-TALDE HAU TRADIZIO handikoa eta sustraitze sakonekoa da Bizkaiko abesbatza-munduan. Jose Ignacio Sarririk sortu zuen 1968an; bere ibilbide luzean kolaborazio ugari egin ditu orkestra eta zuzendari ospetsuekin, baita herrialdeko auditorio eta antzoki askotan jardun ere. Gainera, lau disko ere baditu grabatuta eta Estatuko nahiz nazioarteko hainbat abesbatza-lehiaketa garrantzitsutan ere parte hartu du.

Leioako Udal Kontserbatorioarekin bat egin zuen 1995ean eta abesbatzaren ibilbidearen beste aldi bat hasi zen Basilio Astulezen zuzendaritzapean. Azken aldi horretan Leioako Abesbatzak Estatuko lehiaketa ugaritan parte hartu izan du, hainbat sari garrantzitsu ere lortuz.

Eta 2003an bere sorreraren 35. urteurrena ospatu zuelarik, kontzertu-sorta berezi bat eskaini zuen, baita disko konpaktu bat atera ere, *Gau ilunak ez badu...* izenburukoa.

Hurrengo urtean, 2004ko apirilean, Riva de Gardako (Italia) VII. Nazioarteko

Jaialdian parte hartu zuen, Estatu espainoleko ordezkari bakarra izanik beste 110 herrialdeetako abesbatza-talde banarekin batera. Zilarrezko eta urrezko diploma bana lortu zituen Polifonian eta Eliz Musikan, kritika eta publiko arrakasta handia lortzeaz gain.

Azken urteotan, Margarita Lorenzo de Reizabalen zuzendaritzapean eta Leioako Gazte Orkestrarekin, obra sinfoniko koral ugari interpretatu ditu gure Herriko hainbat auditorio garrantzitsutan; John Rutter-en *Mass of de Children* lana, Baionako katedralean eta Bilboko Euskalduna Jauregian eskainia, nabarmentzen da, azken honetan ere Leioa Kantika Korallarekin batera.

Laster ekitekotan den egitasmoen artean nabarmentzen dira, bateko, Kart Jenkins-en *Requiema*, LGOrekin eta Leioa Kantika Korallarekin batera Bilboko Euskalduna Jauregian, lanaren estreinaldia izango dena Estatu espainolean, eta besteko, datorren udan Esloveniako aialdi garrantzitsu batean parte hartzea. ■



LEIOAKO GAZTE ORKESTRA

MARGARITA LORENZO DE REIZÁBAL

LEIOAKO GAZTE ORKESTRA (LGO) 1990ean sortu zen Leioako Udal Kontserbatorioan eta maila ertaineko ikasleek eta ikasle ohiek osatzen dute. Errepertorio klasiko sinfoniko ugaria du eta horren barruan, konpositore garaikide zenbaiten obren mundu-estrainaldia. Orobat, eta San Juan Bautista Abesbatzarekin eta Leioako Kantika haur-abiesbatzarekin batera egitasmo sinfoniko koral asko burutu ditu oso estilo desberdinetako lanekin: Mozart-en Te Deuma eta Requiema; Bernstein-en West Side Story; Vivaldi-ren Gloria; Fauré-en Requiema, Schubert-meza solen; Pergolesi-en Stabat Mater, eta beste asko.

Sortuz geroztik, LGOk kontzertu-lan trinkoa egin du Euskadiko kontzertu-areto nagusietan ez ezik beste autonomia erkidego batzuetan ere jardunez, hala nola: Logroño-ko Udal Auditorioan, Madril-eko La Almudena Basilikan, Alcobendas antzokian, Kalagorriko Gazte Orkestren Lehiaketan, Segoviako Unibertsitatean, Baionako Katedralean, etab. Aipatzekoa da, halaber, orkestrak gonbidatu gisa parte hartu zuela RTVEko "El Conciertazo" teleaioan, zein

Fernando Argentak zuzentzen baitu, eta hirugarren grabazio bat egin dute 2007ko martxoan.

Nazioarte-mailako hainbat bakarleri eta zuzendari gonbidaturekin jardun du; besteak beste: Félix Ayo biolin-jolea eta Colman Pearce eta Enrique García Asensio maisuak. 1993az geroztik zuzendari titularra Margarita Lorenzo de Reizábal da.

LGOk 5 CD ditu argitaratuta; berorietan, besteak beste, Beethovenen Meza Do maiorrean, zuzenean grabatuta; Mozart-en Requiema, zuzenean Bilboko Arriaga antzokian, eta J. Rutter-en *Mass of the Children*, Euskalduna Jauregian. Laburmetraia zenbaiten soinu-bandak grabatu ditu, haien artean nabarmentzekoak dira, 30 sari baino gehiago dituen *El gran Zambini*-ren musika, edo *Silencios*-ena.

Kritikariak bat datoz esatean Leioako Gazte Orkestra Euskadiko eta Estatu-ko musika-eremuko gazte-orkestrarik puntarengoenetako bat dela, eta haren interpretazio-freskotasuna, seriotasuna eta elkarlanerako diziplina eta soinu-enpasteda nabarmentzen dituzte. ■



MARGARITA LORENZO DE REIZABAL ZUZENDARIA

BILBON JAIO ZEN, eta bertan egin zituen Piano eta Konposizioko goi mailako ikasketak. Karrera amaierako Ohorezko Sariak lortu zituen Solfeo, Piano, konposizio, Orkestrazio, Arte, Musikaren Historia eta Musika Estetika diziplinetan. EHU-n Medikuntza eta Kirurgian Lizentziatuaren titulua eskuratu zuen. BOSeko piano jole izan zen 1982tik 1998ra.

Orkestra Zuzendaritzako ikasketak Ingalaterran egin zituen R. Saglimbeni, G. Hurst eta N. Thompson maisuekin. 2001ean Orkestra Zuzendaritzako Masterra egin zuen Surrey (Ingalaterra), eta bere teknika hobetu zuen R. Houlihan, Denise Ham eta G. Hurst maisuekin. Urte

bereko abuztuan, Canforden (Ingalaterra) mundu osoko 48 zuzendari gazteren artean hautatu zuten Orkestra Zuzendaritzako Nazioarteko Ikastaroko orkestra zuzentzeko. Madrilen Orkestra Zuzendaritzako eta Operako ikastaroak egin ditu Jesús López Cobosekin.

1987an oposizioz Leioako Udal Kontserbatorioko Harmonia eta Konposizio Katedra lortu zuen. 1993az geroztik Leioako Orkestra Gaztearen Zuzendari Titularra da. Berarekin 120 bat kontzertu egin ditu, eta lan sinfonikoak, sinfoniko-koralak eta gaur egungo euskal musikarien erreperitorioa biltzen dituzten 5 disko konpaktu grabatu ditu. Euskadiko kontzertu aretorik garrantzitsuenetan nahiz Espainiako eta Frantziako estatuetako beste erkidego batzuetan aritu da zuzendari. Leioako Orkestra Gazteko buru dela, Fernando Argentak zuzentzen duen RTVEko "El Conciertazo" programarako hirugarren saioa grabatu du orain dela gutxi.

Piano eta ganbera-musikako nazioarteko ikastaroak eman ditu, eta Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak estatutako Musika-Analisi eta Heziketa ikastaroak zuzendu ditu Euskadiko irakasleentzat. Halaber, "Análisis Musical: claves para entender e interpretar la Música" (Boileau arg., 2004) liburuaren egilekidea da. 2007an "Manual de Dirección de Orquesta y Coros" izeneko bere liburu eta DVD berria argitaratu da. Lan hori Kataluniako argitaletxe berberak eskatuta egin du.

Nabarmentzekoa da nazioarteko hainbat sari lortu duela konposizio koralaren arloan eta moldatzaile gisa. Euskal musikarien orkestra-moldaketen zenbait bilduma argitaratu ditu, eta duela gutxi pedagogia-arduradun moduan lagundu du *Aho Bete Kanta* izenburupean azken 40 urteetako euskal musikako 200dik gora pop, folklore eta rock abestiren moldaketa instrumentalean. ■



BASILIO ASTÚLEZ ABESBATZAREN ZUZENDARIA

1975EAN JAI O ZEN. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatuaren titulua eskuratu zuen, eta musika ikasketak Gasteizen egin zituen. Zuzendari prestakuntza egin zuen Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren ikastaroetan eta Espainiako Estatuko zein Europako beste ikastaro eta mintegi batzuetan. Horietan hainbat zuzendarirekin batera aritu zen lanean, besteak beste J. Duyck edo J. Bustorekin.

1994. eta 2005. urteetan kantu koraleko irakasle izan zen Dulantziko (Araba) Musika Eskolan, baita udalerrri horretako Aiala

Abesbatza izeneko emakume abesbatzaren zuzendari ere. 1996. eta 2004. urteen artean Gasteizko Alaitz Abesbatzako zuzendaria izan zen. Berarekin lehenengo sari ugari lortu zituen estatuko nahiz nazioarteko lehiaketetan, besteak beste 2000ko Abesbatzen Sari Nagusian. 1999an Vocalia Taldea emakumeen ganbera-taldea sortu zuen. Talde horrek ere nazioarteko sari garrantzitsu ugari dauzka, esaterako Tolosa 2002-2006, Maasmechelen 2003, Arezzo 2005, Cork 2006.

Leioako Udal Kontserbatorioan kantu koraleko irakasle da, eta 1999az geroztik San Juan Bautista Abesbatzaren zuzendari ere. Azken horrekin jaialdi eta abesbatzen Topaketa ugaritan parte hartu du, baita sari garrantzitsuak lortu ere. 2001ean zentro horren Leioa Kantika Korala haur abesbatza sortu zuen, eta 2005ean, berriz, La Kantoria gazte abesbatza. Talde biek ere musika arloko lan bizi eta aktiboa egiten dute, eta abesbatzen ekitaldi garrantzitsuetara gonbidatzen dituzte.

Bere taldeekin hamar bat grabazio egin ditu disko konpaktuetan. Grabazio horien artean nabarmentzen dira berrienak: *Neskatxena*, Vocalia Taldearen grabatua eta 2005ean argitaratua; eta duela gutxi, 2006an argitaratu den *Kantika* CD eta DVDa, Leioa Kantika Koralarekin grabatua.

Abesbatzen Zuzendaritzako irakasle da Espainiako Estatuko hainbat abesbatzen federazio eta unibertsitatetan (Euskadi, Nafarroa, Madril, Murtzia, Malaga, Alacant), eta sarritan lehiaketa eta jaialditan epaile izateko hautatzen dute, baita kantu koraleko ikastaro eta mintegiak emateko ere. 2000. eta 2005. urteetan, Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak egindako abesbatzako zuzendarientzako prestakuntza programaren zuzendariorde izan da. ■



GARBIÑE ABENDAÑO SOPRANOA

MUSIKA IKASKETAK BILBOKO Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioan eta Donostiako Francisco Escudero izenekoan egin zituen. Horietan Musikaren Pedagogia, Musika-Hezkuntza, Gitarra eta Kantuko goi mailako titulazioak lortu zituen; hain zuzen ere, Kantuan karrera amaierako saria lortu zuen.

Garbiñe Abendaño bere ibilbide profesionalean kantua hartu du ardatz. Alde horretatik, bere ikasketak zabaldu zituen estatuan eta nazioartean izen handia daukaten kantu irakasle eta erreperatorioko piano-joleekin.

Basauriar sopranoak interprete bakarlarri gisa parte hartu du zartzuelako eta operako antzezle zerrendetan, eta Euskadin errezitaldi ugari eskaini ditu.

Bere etengabeko helburuen artean nabarmentzen da euskal musikaren azterketa, bultzada eta babesak, eta horregatik "Euskal Kantu Lirikoa" eta "Euskal Kantu Txapelketa" proiektuetan laguntzen eta parte hartzen du .

Interprete lana eta irakasle lana uztartzen ditu, eta gainera hainbat erakunde, talde eta federazioentzat ahots eta kantu ikastaro espezifikoak eskaintzen ditu. 2005. urteaz geroztik kantu eta ahots teknikako irakasle da Leioako Udal Kontserbatorioan. ■

SIGURJÓN FREYRSSON & SANDRA STANCULESCU BIOLINA

LEIOAKO UDAL KONTSERBATORIOKO biolin-jole gazte hauek 15 urte besterik ez daukate, baina biolin eta ganbera-musikako estatuko zein nazioarteko sari ugari daukate jada. Biek Leioako Udal Kontserbatorioko promozio bakoitzeko ikaslerik onena saritzen duen Dow Chemical Beka jaso dute (Sigurjónek 2003an eta Sandrak 2005ean). Iwona Pryleczka irakaslearen ikasleak dira. ■

Benetan gozatzeko etxebizitzak eraikitzen ditugu



· ZAMUDIO



· AMOREBIETA



· MIRIBILLA-BILBAO

Construimos hogares para disfrutar



Bizkaiko etxebizitzetarako gune berriak erregeneratu eta garatzen ditugu, horietan etxebizitza atseginak eraikitzeko. Etxebizitza horien %50a B.O.E.tarako xedatu da, zailtasunak dituztenak kontuan hartuz.

Dagoeneko 2.000 baino gehiago dira emandako etxebizitzak.

Dagoeneko 2.000 baino gehiago dira pozik dauden familiak.

Regeneramos y desarrollamos nuevas áreas residenciales de Bizkaia, construyendo en ellas hogares confortables. El 50% de estos hogares se han destinado a V.P.O. pensando en quienes no lo tienen tan fácil.

Ya son más de 2.000 las viviendas entregadas.

Ya son más de 2.000 las familias satisfechas.



· ETXEBARRI



· LAMIAKO-TXOPOETA (LEIOA)

Santiago de Compostela 12, 3º ·
Miribilla · 48003 - Bilbao ·
Tel.: 94 479 23 82